



**Arartekoaren 2016R-6-15 Ebazpena, 2016ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Bilboko Udalari Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTAr) buruzko Ordenantzaren 27.1.b). artikulua berrikus dezan gomendatu zaio, enpresa-ibilgailu bat esleituta eta ibilgailu partikularra duten pertsonak ibilgailu bat ala bestea hautatzeko aukera izan dezaten, egoiliarren araubideari onura ateratzeko.**

### Aurrekariak

1. Erregulatutako aparkamendu eremu batean bizi den Bilboko auzoko bati egoiliar-txartela ukatu zion udalak esleituta zuen enpresa-ibilgailurako, ibilgailu partikular bat ere zuelako. Beraz, Arartekoak esku hartzea eskatu zuen Erregulatutako Aparkamendu Zerbitzuaren Ordenantzak ezartzen duen baldintza berrikusteko, izan ere, ibilgailu propioa ez izatea ezartzen du enpresa-ibilgailu bat duten egoiliarren erregimenari lotzeko Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTAr) buruzko Ordenantza [27.1.b. art.]].

Kexagileak adierazi zigun ez zuela eskatu egoiliar-txartelik ibilgailu partikularrerako, horretarako eskubidea bazuen ere, hain zuzen ez zuelako behar, ibilgailua garaje batean aparkatzen zuelako. Enpresa-ibilgailurako behar zuen, bide publikoan aparkatu behar baitzuen.

Kexa-egileak bi ibilgailu jabetzan dituzten pertsonen egoerarekin konparatu zuen berea. Kasu horretan, Ordenantzak egoiliar-txartela bi ibilgailuetarako lortzeko eskubidea ematen du, horietako bat normalean gidatzen duen pertsona "*titularren ezkontidea, behar bezala erregistratuta dagoen izateko bikotea edo lehen mailako zuzeneko odoleko ondorengoa bada*" (28.2. art.).

Halaber, TAOren aparkatzeko eremuaren erabileraren ikuspegitik, enpresa-ibilgailurako txartela emateak bere ibilgailu partikularrerako txartela emateak izango lituzkeen ondorio berak izango lituzkeela nabarmentzen du kexagileak.

2. Kexa izapidetzeko onartuta eta aztertuta Bilboko Udalera jo genuen, adierazitako gaiei buruzko informazioa eman zezan, eta enpresa-ibilgailu bat zuen kexagileari legeak ezartzen duenari jarraituz egoiliar-txartela ukatzeko arrazoiak eman zitzaizkion.

Gure eskaerari erantzunez, udala ikuspuntu orokor batetik oinarritu zen ordenamendu juridikoak trafikoa ordenatzeko eta mugatutako aparkatze neurriak ezartzeko ematen dion eskumenean aipatutakoa, baita eskumen horren hautazko izaeran ere. Bestalde, ordenantzaren xede nagusia aipatu zuen; hau da, aparkatzeko eskuragarri dagoen espazio publiko urria ondasun horren eskatzaile ugarien artean bidezko moduan partekatzea, eta xede hori ibilgailuen errotazioarekin lortu nahi dela adierazi zuen. Horrez gain, errotazioa eta sistemaren funtzionamendu zuzena bermatu ahal izateko, egoiliarren txartel kopurua mugatu behar dela adierazi zuen.





Udalak eman zigun informazioaren arabera, aipatutako helburua lortzeko: *“ha optado de forma clara por conceder dicho distintivo solo a las personas físicas, con acreditado arraigo y que dispongan de un vehículo en propiedad”*. Adierazi zigun moduan, hori dela eta: *“inicialmente excluidos las personas físicas que no tuvieran un vehículo de su propiedad, así como las personas jurídicas”,* baina *“Con el tiempo se consideró la posibilidad excepcional –y así se ha plasmado en las últimas Ordenanzas– de que pudieran acceder al distintivo aquellos residentes que no teniendo vehículo propio, dispusiesen de un vehículo cedido por la empresa para la que trabaja, para su uso exclusivo, uso –valga la redundancia– que, además, debe tributar como retribución en especie, a los efectos de la declaración del Impuesto sobre la renta de las personas físicas”*.

Udalak neurria justifikatu zuen, bere ustez, enpresa-ibilgailu bat duten egoiliarren erregimenak Ordenantza duen izaerarengatik, *“dispensa o excepción al régimen ordinario de los residentes”* delako. Hori dela eta, *“se entendió que si un residente posee dos vehículos: uno en propiedad y otro cedido por la empresa, solo se concederá el distintivo para el primero de ellos”*. Bestalde, neurri horrekin honakoa egin nahi dela adierazi zigun: *“restringir el número de vehículos adscritos a flotas de empresas, que aparca habitualmente en las vías públicas”*.

Udal informazioan hala ere, ez da ezer aipatzen enpresa ibilgailuaren egoiliar erregimena ezartzearekin lortu nahi den helburuari buruz. Hori, aurrerago arrazoituko dugun bezala, kexa oinarritu duen legezko ezarpena aztertzeko ezagutu behar dugula uste dugu.

Modu berean, ez dira aipatzen interesdunak planteatutako honako alderdiak: enpresa ibilgailuarentzako txartela emateak ez lituzke izango txartela bere ibilgailu partikularrarentzat emateak izango lituzkeen ondorio ezberdinak, TAO aparkalekuentzat erreserbatutako espazio publikoaren erabileraren ikuspuntutik bederen, ez eta enpresa ibilgailu bat eta propioa ere dutenen eta bi ibilgailuen titularrak direnen egoeraren artean dauden antzekotasunak ere.

Aipatutako informazioa ikusita, kexari buruz geuk egindako balorazioa bidali genion udalari, gogoeten epigrafean jasotzen dugun moduan, eta bestelako justifikaziorik ezean, gure ustez, enpresa-ibilgailu bat eta ibilgailu partikular bat duten egoiliarrek ibilgailu bat ala bestea hautatzeko aukera aztertu behar zuela adierazi genion, egoiliarren araubideari onura ateratzeko.

Horrez gain, gure ustez, kexagileak adierazitakoa ere argitu beharko lukeela adierazi genion, hots, bi ibilgailu jabetzan dituzten pertsonak eta ibilgailu bat jabetzan eta enpresako ibilgailu bat duten pertsonak duten tratamendu desberdina.





Azkenik, guk egindako balorazioari buruz zuen iritzia adieraztea eta esan genion moduan jokatzeko aukerari buruzko informazioa ematea eskatu genion.

3. Gure eskaerari erantzunez, Zirkulazio, Garraio eta Ingurumen Arloko zinegotzi ordezkariaren txostena igorri zigun udalak, eta, bertan, honakoa adierazi zen:

*“PRIMERO.- Nos ratificamos íntegramente en lo dicho en nuestro anterior escrito, en el que creemos haber justificado sobradamente el porqué de haber excluido de la posibilidad de obtener el distintivo de residente para el vehículo de empresa, cuando se posee uno en propiedad.*

*SEGUNDO.- Para finalizar, le informo que el Ayuntamiento no prevé, al menos a corto plazo, modificar las condiciones de los vehículos que tienen acceso al distintivo de residentes.”*

### Gogoetak

1. Bilboko Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTAr) buruzko Ordenantzak erregulatutako aparkamenduko araubide orokor bat ezartzen du kanpotik etortzen diren ibilgailuetarako, eta salbuespenezko araubide batzuk egoiliarren ibilgailuetarako (2.2. art.). Azken araubide horretan hiru egoiliar-kategoria daude: a) Jabetzako ibilgailu bat duten egoiliarrak; b) ibilgailua finantza alokairu erregimenean duten egoiliarrak (leasing edo renting); eta c) egoiliarra, enpresa-ibilgailu baten erabiltzailea, lan egiteko erabiltzen duena (22. art.).

Ordenantzak hiru kategoriei aparkatzeko eskubide berak onartzen dizkie, eta Bilboko Udalak adierazitakoaren kontra, ez du ezartzen egoiliarren araubide arrunt gisa ibilgailu propioa duten egoiliarren kategorია, ez eta enpresa-ibilgailua duten egoiliarren kategorία ibilgailu propioa duten egoiliarren salbuespen-araubide gisa (VI. kapitulua).

Adierazi dugun moduan, arau horren 27.1.b). artikulua (hura aplikatzearen ondorioz egoiliarren TAO txartela ukatu zaio kexa-egileari bere enpresa-ibilgailurako), pertsona interesdunak jabetzako ibilgailurik ez izatea ezartzen du ibilgailu propioa duten egoiliarren araubideari onura ateratzeko, ibilgailu partikularra egoiliarren araubideari lotuta dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

2. Egoiliarren araubideak aparkatzeko abantailak ibilgailu jakin batzuei murrizteko aukera, kategoría horietan ez daudenak kanpoan uztea dakarrena, gure ustez, ordenamendu juridikoak udalei trafikoa antolatzeke, aparkalekuak arautzeke eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzeko ematen dien hautagarritasun tarte zabalak babesten du, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko helburuarekin [apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g). art., Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen





17.4. art., Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7.a). eta b). eta 38.4. artikuluei dagokienez, urte honetako urtarrilaren 30era arte indarrean egon dena, lege beraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren 7.a). eta b). artikulua, hurrengo urteko urtarrilaren 31etik indarrean dagoena].

Ahalmen horren arabera, udal administrazioek legez aukeratu dezakete, dauden aukera posibleen artean, eskumena esleitzeko xedek betetzeko egokiena iruditzen zaien horixe.

Beraz, bat egiten dugu Bilboko Udalak helarazi dizkigun gogoeta orokorrekin, gai horren gainean duen eskumenei eta eskumen horien zehurtiazko izaerari dagokienean, bai eta aparkamenduari zuzendutako espazio publiko urriari dagokionean ere, eta espazio hori balizko erabiltzaileen artean bidezko moduan banatzeko beharri dagokionean, erregulatutako aparkamendu sistemaren oinarrian dagoelarik azken hori.

Administrazioaren hautemate subjektiboak eratzen dituen elementuekin batera, ordea, lege ezarritako beste elementu batzuk daude zehurtiazko eskumen orotan, eta, horietan, ez dago balioztatzen tarterik. Elementu arautuak deitzen zaie azken horiei, eta horien artean daude eskumenaren existentzia bera, horren hedadura, prozedura, berau erabiltzeko eskuduntza eta horren erabilera esleitzeko xedea.

Gainera, gogorarazi beharra dago doktrina eta jurisprudentzia itxuratuz joan diren muga zehatz batzuen mende dagoela zehurtiazko eskumenaren erabilera. Muga horietako batzuek euren eduki arautuarekin dute zerikusia, eta beste batzuek zuzenbidearen printzipio orokorrekin eta egitate erabakigarriekin daukate zerikusia.

Aipatutako muga guztien artean azpimarratu behar dugu, kexarekin duen lotura dela eta, ahalmenaren gauzatzea gaitzen duen arauak bilatzen duen helburu generikoari eta neurria hartzearekin lotu nahi duen helburu zehatzari egokitzearen beharra.

Beraz, arrazoiketa ezagutzea, edo, gauza bera dena, neurria eta neurri horrekin lotu nahi den xedea justifikatzeko arrazoi zehatzak ezagutzea funtsezkoa da kasu bakoitzean egokitzapen epaia egin ahal izateko.

Auzitegi Gorenak adierazi du arrazoiketa ezin dela zehurtiazko erabakiengandik bereizi, arrazionalki jardun dela bermatzen duelako horrek, eta, gainera, erabaki horien kontrol egokia ahalbidetzen duelako (Administrazioarekiko Auzien Salaren 7. atalaren 1999ko ekainaren 1eko epaia).





Antzeko terminoetan mintzatu da Andaluziako Justizia Auzitegi Gorena, zuhurtziazko erabakien arrazoiketaren garrantzia azpimarratu baitu, honakoa adieraziz:

*“Dado que las potestades administrativas, y por tanto también las discrecionales, son atribuidas por el ordenamiento jurídico a la Administración para que ésta pueda servir los intereses generales –art. 103.1 de la Constitución– es claro que la actuación de aquéllas no puede legalmente ser cauce hábil para la arbitrariedad. Y es la motivación de las decisiones discrecionales un importante instrumento a la hora de evitar que el resultado de la discrecionalidad sea una arbitrariedad. El poder administrativo de un Estado de Derecho es siempre, y más todavía el poder discrecional, un poder obligado a dar cuenta de su efectivo servicio a la función para la que fue creado, a justificarse en su ejercicio y a justificar también su conformidad a la Ley y al Derecho, a los que está expresa y plenamente sometido por la Norma Fundamental y en esta línea, «la motivación de la decisión comienza, pues, por marcar la diferencia entre lo discrecional y lo arbitrario y ello porque, si no hay motivación que la sostenga, el único apoyo de la decisión será la sola e insuficiente voluntad del órgano competente»” (Granadako Administrazioarekiko Auzien Salaren atal bakarraren apirilaren 24ko 552/2000 epaia, laugarren zuzenbide oinarria).*

3. Bilboko Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTARI) buruzko Ordenantzaren 27.1.b) artikulua jaso duen aurreikuspena adierazitako ikuspegitik aztertu ahal izateko, beharrezkoa da, beraz, Bilboko Udalak aurreikuspen horrekin bilatu duen xedea eta aurreikuspen hori justifikatzeko arrazoiak kontuan hartzea.

Ibilgailu propioa ere duten erabiltzaileen enpresa ibilgailuen kanpoan uztea baloratzeko, ezagutu behar da enpresa ibilgailua duen egoiliar erregimena ezartzean lortu nahi izan den helburua.

Adierazi dugun moduan, udalak bereizi egiten ditu egoiliarren araubidean enpresa-ibilgailu bat duten egoiliarrek eta enpresa-ibilgailu bat ibilgailu propioa duten egoiliarrek, enpresa-ibilgailua duten egoiliarren araubidea salbuespen gisa hartzen delako Aparkamendurako zerbitzuari (TAO/OTARI) buruzko Ordenantzari, ibilgailu propioa duten egoiliarren araubidearen izaera arruntaren aldean.

Aurretik ere adierazi dugunez, gure ustez, bi araubideen arteko bereizketa hori ez du babesten Ordenantzak, araubide bat bakarrik ezartzen duelako egoiliar guztientzat, salbuespentzat hartzen duena, eta hiru motatako egoiliarrek maila berean barne hartzen dituelako (ibilgailu propioa dutenak, finantza alokairu erregimeneko ibilgailua dutenak eta enpresa-ibilgailua dutenak). Guztiei aparkatzeko eskubide berak ematen dizkie (VI. kapitulua).





Aurrekarietan adierazi dugu Udalak, sistema ongi ibiltzeko, egoiliar-txartelak mugatu behar direla justifikatzen duela, eta horren asmoa dela murriztea *"el número de vehículos adscritos a flotas de empresas, que aparca habitualmente en las vías públicas"*.

Ez dakigu *"vehículos adscritos a flotas de empresas"* adierazpenarekin enpresa ibilgailuei buruz ari den. Edozein kasutan, argitu beharra dugu kexan adierazi dena ez dela beren ibilgailuentzako egoiliar txartelaren aitortpena TAO eremuan kokatutako enpresentzat. Proposatzen duguna da enpresa-ibilgailu bat duten egoiliarren araubidetik kanpo uztea egoiliar baten enpresa-ibilgailua, egoiliar horrek jabetzako beste ibilgailu bat ere duelako, eta egoiliarren araubidearen ez dagoelako lotuta.

Edonola ere, uste dugu justifikazio hau baloratu ahal izateko beharrezkoa dela zehatz-mehatz ezagutzea udalak aipatutako ibilgailuak zeintzuk diren eta ezagutzea, halaber, enpresa ibilgailua duen egoiliar erregimena ezartzean lortu nahi izan den helburua zein den, horrela bakarrik azter daitekeelako kanpoan utzi izana helburu horren harira, gure ustez egin behar den moduan, arrazoitu dugun guztia kontuan hartuz.

Bestalde, uste dugu, kexagileak bezala, egoiliar txartelen murrizketarekin lortu nahi den helburua, hau da, sistema ez kolapsatzea, enpresa ibilgailu bat eta aldi berean ibilgailu partikular bat duten egoiliarrak txartela izateko ibilgailu bat ala bestea aukeratzen lortuko litzatekeela, finean kexan planteatzen duena dela.

Ulertzen dugu egoiliar erregimenaren helburua dela egoiliarrak propio bezala erabiltzen duten ibilgailua euren etxetik kanpo aparkatzeko aukera izatea dela –bai euren, enpresaren edota finantza alokairu erregimenean erabiltzen dutena izanda–, mugatutako aparkatzeak ezartzen dituen oztoporik gabe.

Hori horrela bada, egoiliarren araubideak irtenbidea eman nahi dien aparkatzeko beharrak, gure ustez, enpresa-ibilgailu guztietarako berdinak izango lirateke, ibilgailu partikularra izatea edo ez kontuan hartu gabe, nahiz eta aparkaldi mugatuko sistemarekin lortu nahi den helburu orokorra betetzeko, pertsona beraren egoiliarren araubideari onura ateratzeko eskubidea duen ibilgailu kopurua mugatu behar. Hala ere, ibilgailuak egoiliarren araubide berari –jabetzako ibilgailuenari– edo bi araubideri –jabetzako ibilgailuena eta enpresa-ibilgailuenari– lotzean araubide desberdinak ezarriko balira, Ordenantzak egiten duen moduan, adierazi dugun moduan behar bezala justifikatuta jasota geratu beharko litzateke.

Ikuspuntu honetatik, uste dugu Udalak eman dizkigun azalpenak justifikatuko lukeela egoiliar bereizgarrien ematea murriztea, baina ez lukete justifikatuko mugatzeak enpresa ibilgailu batzuk bakarrik kaltetzea, dirudien bezala kanpoan utzitako ibilgailuek barruan daudenen baldintza berdinak betetzen badituzte, etxebizitzatik gertu aparkatzeko euren titularren behar berdina





badute, eta kanpoan uztea eragiten duen ibilgailu partikularra egoiliarren araubideari lotuta ez badago.

Aurrekarietan jasota geratu den moduan, udalak ez digu argitu galdetutakoa, eta ez digu adierazi zer helburu bete nahi duen ibilgailu pribatu bat egoiliarren enpresa-ibilgailuak eta enpresa-ibilgailua duten egoiliarren araubidetik kanpo uztearekin, gure balorazioari emandako erantzunean, hasiera batean eman zigun informazioa berretsi baino ez digula egin. Gure balorazioaren inguruan duen iritzirik ere ez digu eman. Finean ez digu argitu kexagileak galdetutakoa, hots, zergatik ez dauden egoera berean kexagilea bera eta jabetzako bi ibilgailu dituzten pertsonak, izan ere, azken horiei ibilgailu bakoitzerako txartela lortzeko eskubidea ematen die zenbait baldintza betetzen badituzte. Bestalde, ez du justifikatu tratamendu desberdin hori.

Udalak emandako erantzunaren ondorioz, kexaren hasierako balorazioa berretsi behar dugu, eta azpimarratu behar dugu, gure ustez, udalak eman dizkigun arrazoiek ez dutela justifikatzen enpresa-ibilgailua duten egoiliarren araubidetik kanpo uztea egoiliarren araubideari lotuta ez dagoen jabetzako ibilgailu bat duten egoiliarrek. Gure ustez, arrazoi horiek eta egindako gogoetak kontuan hartuz, baztertze hori ez du legeak babesten ordenamendu juridikoak udal administrazioari esparru horretan hautatzeko ematen dion eskumenean.

Aurrekoaren ondorioz, bestelako azalpenik egon ezean, udalak, baztertze hori ezartzen duen aparkamendu zerbitzuari buruzko Ordenantzaren 27.1.b). artikulua berrikusi beharko lukeela uste dugu, enpresa-ibilgailu bat eta ibilgailu partikular bat duten egoiliarrek ibilgailu bat edo bestea hautatzeko aukera izan dezaten, egoiliarren araubideari onura ateratzeko. Horrez gain, bi ibilgailu dituztenei ematen dien tratamendu desberdina ere justifikatu beharko luke, aukeratzen duten egoiliarren araubidearen arabera.

Horrenbestez, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honakoa da Bilboko Udalari luzatzen zaion

## GOMENDIOA

Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTari) buruzko Ordenantzaren 27.1.b). artikulua berrikustea, enpresa-ibilgailu bat eta ibilgailu partikular bat duten egoiliarrek bata edo bestea hautatzeko aukera izan dezaten, egoiliarren araubideari onura ateratzeko.

